

BEZEROAREKIKO HARREMANA

• Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek?

Kontsumo-esperientzia txar baten inpaktua ez da soilik pertsona baten memoria markatzen, baizik eta haren eraginak uste baino kalte handiagoa eragin dezake. Hori saihesteko, lehenik eta behin «saldu, saldu eta saldu» pentzatu kapitalista aldatuko dugu. Azken finean kooperatiba bat gara, hau da, interes berdina duten pertsona fisikoen eta juridikoen arteko elkarte. Hori dela eta, gure helburu nagusia ez dira mozkinak eta mozkinak ateratzea, baizik eta mugimendu kultural eta sozial bat egitea, gure kasuan, geuen produktuaren erabiltzaileak kontziente izatea produktu bat ekoiztu eta produzitu daitezela kutsatu gabe.

Hauek dira ezaugarri nagusienak:

- Elkartekideen arteko elkarrekiko laguntza bultzatzen du.
- Ahalegin indibiduala eta motibazio partekatua sustatzen ditu.
- Sistema demokratiko eta justu bat ahalbidetzen du.

Bezeroak nola mantentzen saiatuko garen galdetuta, fidelizazio-programak ezarriko ditugu, enpresarekin nolabaiteko harremana duten bezeroak erakartzeko eta berriak erakartzeko estrategia baita. Hain zuzen ere, gure helburua urtero zozketa batean parte hartzeko bezero guztiak eskubidea izatea da. Gauza desberdinak zozkatuko dira, besteak beste, kargadorearentzako funda pertsonalizatu bat edo %50 deskontua izatea gure kargadore mota guztientzako.

Hala ere hau buruan mantendu behar dugu, ezustekorik ez izatea. Eduki behar da gure plana antolatuta eta bideratuta. Ez utzi ezustekorik izaten, hala nola produktu bat entregatzeko azken egunak pasatzen uztea edo aurrekontu batetik harago joatea. Prestatu ustekaberako, baina kaosa eszenatik kanpo zenbat eta gehiago mantendu, orduan eta baliotsuagoa izango gara zure bezeroarentzat.

Azkenik, gaur egun teknologia guztion artean bizi denez, egingo dugun web orriaren bidez, hiru faktore kontuan hartzen saiatuko gara, gure bezeroak erakartzeko eta mantentzeko: orrialdea kargatzeko denbora, produktuak aurkitzeko erraztasuna eta diseinu deigarria.